



DIARIO DE SESIONES
DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA

IX Legislatura

Pamplona, 3 de octubre de 2018

NÚM. 14

TRANSCRIPCIÓN LITERAL

**COMISIÓN ESPECIAL PARA LA ELABORACIÓN DE UNA
NUEVA LEY FORAL DEL EUSKERA**

PRESIDENCIA DEL ILMO. SR. D. DABID ANAUT PEÑA

SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 3 DE OCTUBRE DE 2018

ORDEN DEL DÍA

— Comparecencia de una representación de Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua.

(Comienza la sesión a las 12 horas y 21 minutos).

Comparecencia de una representación de Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua.

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Egun on. Hasiera emango diogu gaurko Batzorde Bereziari. Gaurko deialdiak esaten duen bezala, gaur hemen daukagu agerraldirako gonbidatuta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua. Izenak dioen bezala, euskararen inguruko erakundeak biltzen ditu eta kontseiluaren izenean hitz egiteko etorri dira Paul Bilbao, idazkari nagusia hain zuzen ere, eta zuzendaritzako kide den Joserra Olano, zuzendaritzako kidea eta IKA-ko kidea eta ordezkaria. Horrenbestez, dakizuen bezala, aurrekoan dinamika edo arauak aldatu genituen eta beraz, ordu erdiko tartea izango dute agerraldira etorritako gonbidatuek. Ondoren, parlamentu taldeen txanda izango da eta horiek bukatutakoan 20 minutuko tartea berriz erreplikarako. Beraz, aurkezpenean gehiago luzatu gabe, hitza emango diogu kontseiluko ordezkariari. Zuen da hitza.

[Buenos días. Comenzamos esta Comisión Especial. Como dice la convocatoria, hoy tenemos aquí como invitado para la comparecencia al Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua. Como su propio nombre indica, reúne a las instituciones relacionadas con el euskera y para hablar en nombre del Consejo han venido Paul Bilbao, secretario general, y Joserra Olano, miembro de la dirección y miembro y representante de IKA. Por lo tanto, como saben, en la anterior ocasión cambiamos la dinámica o las normas y, por lo tanto, los invitados que vengan a la comparecencia tendrán un plazo de 30 minutos. Después, será el turno de los grupos parlamentarios y cuando estos terminen, habrá un plazo de 20 minutos para la réplica. Por lo tanto, sin extenderme más en la presentación, damos la palabra al representante del Consejo. Tienen ustedes la palabra.]

SR. PAUL BILBAO: Egun on guztioi eta lehenik eta behin mila esker Batzorde honetan parte hartzeko gonbidapena egiteagatik. Plazer bat da hemen egotea. Azken finean, etxe honetan onartzen dituzue eta idazten dituzue herritar guztiei eragiten dieten legeak. Orduan guretzat aukera ezin hobea da gure ekarpena egiteko herritarrei eragingo dien lege baten balizko idazketa horretan. Batzordeko presidenteak esan bezala, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua bilgune bat da eta bertan euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten 30etik gora eragilek parte hartzen dute. Esan dezakegu euskal gizarte-eragileen, alegia, euskalgintzaren euritakoa dela Euskal Gizarte Erakundeen Kontseilua. Gure funtzioa gure hizkuntzaren normalizazio edo berreskurapen prozesua bizkortzea da, sozialki zein politikoki eraginez, eta gaurko helburua, nolabait, politikoki eragitea litzateke.

[Buenos días a todos y, en primer lugar, muchas gracias por la invitación para participar en esta Comisión. Al final, en esta casa aprueban y redactan las leyes que afectan a todos los ciudadanos. Entonces, para nosotros es una opción inmejorable para realizar nuestro aporte en esa hipotética redacción de una ley que afectará a todos los ciudadanos. Como ha dicho el Presidente de la Comisión, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua es un lugar de encuentro y en él participan más de 30 agentes que trabajan a favor de la normalización del euskera. Podemos decir que Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua es el paraguas de los actores sociales vascos, es decir, el paraguas de la actividad cultural vasca. Nuestra función es acelerar el proceso de

normalización y recuperación de nuestra lengua, actuando tanto social como políticamente, y el objetivo actual de algún modo sería actuar políticamente.]

Nik egingo dudan edo aurkezpenean, edo guk egin dugun proposamenean, bi elementu jarriko ditugu agerian. Batetik, esan bezala, Kontseiluak hizkuntza eskubidea bermatzeko lege proposamen bat egin du, proposamen osoa, proposamen integrala. Hori Batzordeko presidenteari helaraziko diot eta emaillez igorriko dizuegu, nahi izanez gero lege horren idazketan kontuan har dezazuen. Eta guretzat garrantzitsuena dena da euskararen lege berri hori idazteko, besteak beste, guk zer hartu dugun kontuan. Herritarra kontuan hartu dugu. Lanketa batzuk egin ditugu eta horiek ere zuekin partekatu nahi genituzke. Badakigu azken hilabeteetan eragile asko pasatu direla Batzorde honetatik: adituak, sektore batzuetako ordezkariak –esaterako, langileen ordezkariak, eta abar–, eta zeinek bere ikuspegia agertu du.

[En la presentación que voy a realizar, o en la propuesta que hemos realizado, pondremos en manifiesto dos elementos. Por un lado, como he dicho, el Consejo ha realizado una propuesta de ley para garantizar el derecho lingüístico, una propuesta completa, una propuesta integral. Se la haré llegar al Presidente de la Comisión y se la enviaremos a ustedes por correo electrónico, para que la tengan en cuenta, si así lo desean, posteriormente en la redacción de esa ley. Y para nosotros lo que es más importante es que para la redacción de esa ley, ente otras cuestiones, qué es lo que nosotros hemos tenido en cuenta. Hemos tenido en cuenta al ciudadano. Hemos realizado otros trabajos y nos gustaría también compartirlos con ustedes. Sabemos que en los últimos meses han pasado muchos actores por esta Comisión: expertos, representantes de algunos sectores –representantes de trabajadores, por ejemplo– y que cada uno ha mostrado su punto de vista.]

Guk nahiko genuke maila batean euskaraz bizi nahi duten herritarren bizipenak hona ekartzea, euskaraz bizi nahi duten herritarren eskaerak hona ekartzea, lehen esan bezala, halako lege bat onartzen denean, azken finean herritarrengan eragiten duelako. Gure saiakera izango da ikustea gaur egun nafar euskaldunek, euskaraz bizi nahi duten nafarrek, nola bizi duten, nola pairatzen duten egungo marko juridikoa eta beraz, zer proposamen egiten duten beraien helburu hori, alegia, euskaraz bizitzeko nahi hori, egikaritu ahal izateko.

[Nosotros queríamos en cierta medida traer aquí las vivencias de los ciudadanos que quieren vivir en euskera porque, como he dicho antes, cuando se aprueba una ley así, al final afecta a los ciudadanos. Nuestra tarea será ver cómo viven actualmente los navarros vascoparlantes, cómo sufren el marco jurídico actual y, por lo tanto, qué propuestas hacen para poder llevar a cabo su objetivo, es decir, ese deseo de vivir en euskera.]

Bigarrenik, nola ez, horretarako gonbidatu gaituzuelako, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren ustez, zer-nolako elementuak kontuan hartu beharko liriatekeen euskararen lege bati begira. Esan bezala, beraz, guk herritarrek erdigunera ekartzeko, azken urtean modu intentsiboagoan lan egin dugu Nafarroan, nahiz eta Kontseilua orain dela 20 urte sortu zenetik lanean ibili garen. Hain zuzen ere, aldaketaren gobernua egon delako eta jakin nahi genuelako herritarrek egunerokotasunean nola bizi duten euskaraz bizitzeko nahi hori. Hortaz, gure lege-proposamena egiteko, oso garrantzitsua izan da herritarrek egin diguten ekarpena. Batetik,

iazko udazkenean «Euskara ofiziala Nafarroa osoan» izeneko dinamika abiatu genuen eta dinamika hori neurri handi batean legeak ezarritako eremu mistoko hainbat herritan garatu genuen. Kontuan hartu behar dugu euskaldun kopuru handiena eremu horretan kokatzen dela gaur egun Nafarroan, euskaldun gehienak ikuspegi kuantitatibo batetik, eremu mistoan kokatzen direla.

[En segundo lugar, cómo no, ya que nos han invitado para eso, queríamos hablar desde el punto de vista de Euskaraen Gizarte Erakundeen Kontseilua, qué tipo de elementos se deberían tener en cuenta de cara a una ley del euskera. Como he dicho, por lo tanto, para traer al centro a los ciudadanos, en el último año hemos trabajado de forma más intensiva en Navarra, aunque hemos estado trabajando desde que se creó el Consejo hace 20 años. Concretamente, porque ha estado el gobierno del cambio y porque queríamos saber cómo viven día a día ese deseo de vivir en euskera. Por lo tanto, para realizar nuestra propuesta de ley, han sido muy importantes las aportaciones de los ciudadanos. Por un lado, el pasado otoño pusimos en marcha la dinámica llamada «Euskera oficial en toda Navarra» y esa dinámica la desarrollamos en gran medida en diversos pueblos que la ley ha denominado como de la zona mixta. Tenemos que tener en cuenta que el mayor número de vascoparlantes se sitúa en ese territorio, que la mayoría de los vascoparlantes, desde un punto de vista cuantitativo, se sitúan en la zona mixta.]

Horren bitartez, herritarrei eskatu genien beraien egunerokotasunean euskaraz bizitzeko aurkitzen dituzten oztopoak zehaztea. Baina, saiatu ginen modu pragmatiko batean azaltzen, ez bakarrik modu aldarrikatzaile batean: egunerokotasunean, «non ezin duzu euskaraz bizi?», «non dituzu oztopoak euskaraz bizitzeko?». Egia da dinamika eremu mistoko udalerrietan egin genuela eta orduan egia da herritarrengandik jaso genituen urraketak edo bizipenak udalen jardunei lotzen zitzaizkiola neurri handi batean: gizarte zerbitzuak ezin dituztelako euskaraz jaso, derrigorrezkoa ez den irakaskuntzaren inguruko eskaintza –musika eskoletan, arte eskoletan, eta abar– euskaraz ezin dutelako jaso eta abar.

[Mediante esa, les pedimos a los ciudadanos que concretaran los obstáculos que se encuentran para vivir en euskera en su día a día. Pero, tratamos de explicarlo de forma pragmática, no solo de forma reivindicativa: en el día a día, «¿dónde no puede vivir en euskera?», «¿dónde tiene dificultad para vivir en euskera?». Es cierto que la dinámica la hicimos en los municipios de la zona mixta y entonces es cierto que las infracciones o vivencias que recibimos por parte de los ciudadanos respondían en gran medida a las acciones de los municipios: que no pueden recibir servicios sociales en euskera, una solicitud sobre la enseñanza que no es obligatoria –escuelas de música, escuelas de arte, etcétera– donde no pueden recibirla en euskera, etcétera.]

Eta horrela, 2.600 eskaera baino gehiago jaso genuen. Horiek guztiak Nafarroako Parlamentuko presidente andreari helarazi genizkion horren konstantzia egon zedin. Herri guztietan elementu berdina errepikatzen zen, osasun zerbitzuari lotuta. Herritar askok agertzen zuten osasun zerbitzua euskaraz jasotzea ia ezinezkoa zitzaiela eta horrexegatik guk aurkeztuko dugun lege proposamenean lehentasunezko elementu batzuk identifikatu ditugu eta iruditzen zaigu osasungintza ere sartu behar dela. Guk, eta hau gure irakurketa da,

hizkuntza eskubideak eskubide subjektiboak direla uste dugu eta horrek, eskubide subjektibo izateak, eragiten duela instituzioek nolabaiteko neurriak hartu behar dituztela. Eta hor bi eskubide gurutzatzen dira: osasun-arretarako eskubidea eta hizkuntza eskubidea. Benetan pentsatzen dugu osasun eskubideak badaukala bere dimentsio linguistikoa eta ondorioz hor neurri espezifikagoak hartu behar direla.

[Y así, obtuvimos más de 2.600 solicitudes. Todas ellas se las hicimos llegar a la señora Presidenta del Parlamento de Navarra para que quedara constancia de ello. En todos los pueblos se repetía el mismo elemento relacionado al servicio sanitario. Muchos ciudadanos indicaban que les era casi imposible obtener el servicio sanitario en euskera y por eso en la propuesta de ley que vamos a presentar hemos identificado algunos elementos prioritarios y nos parece que la sanidad también tenemos que incluirla. Nosotros, y esta es nuestra lectura, los derechos lingüísticos son derechos subjetivos y eso, el hecho de que sean derechos subjetivos, tiene un efecto en que las instituciones tengan que tomar algún tipo de medidas. Y ahí se cruzan dos derechos: el derecho de atención sanitaria y el derecho lingüístico. Realmente pensamos que el derecho a la sanidad tiene su dimensión lingüística y que, como consecuencia, ahí tenemos que tomar medidas más específicas.]

Bigarren dinamika legeak ezarritako hiru eremuetan antolatu genituen hainbat tailerretan oinarritzen da, Tuteran, Lizarran, Barañáin, Baztanen eta abar. Hor herritarrak lanean jarri genituen eta eskatu genien oztopoak non zituzten azaltzeko. Egia da modu espezifikago batean galdetu geniola: «hezkuntzan, non dituzue oztopoak?», «administrazioan, non dituzue oztopoak?», «nola bizi daiteke kultura euskaraz gaur egun?» eta abar. Baina horrez gain, herritarrei eskatu genien ekarpenak egiteko. Badakigu herritarrak ez direla legegileak eta ez dutela zertan izan, herritarren funtzioa ez baita hori, baina galdetu genien beraien ustez zer neurri hartu beharko liratekeen oztopo horiek gainditzeko. Eta proposamenean ideia-sorta hori agertzen da, beraiek pairatzen duten urraketa horri lotuta proposatu zituzten neurriak, iruditzen zitzaigulako eta gaurko aurkezpenaren bokazioa hori delako, zerbait propositiboa egitea.

[La segunda dinámica se basa en diversos talleres que preparamos en las tres zonas que establece la ley, en Tudela, Estella, Barañáin, Baztán, etcétera. Ahí pusimos a trabajar a los ciudadanos y les pedimos que explicaran dónde tenían dificultades. Es cierto que se lo pedimos de forma más específica: «en la educación, ¿dónde tienen dificultades?», «en la administración, ¿dónde tienen problemas?», «¿cómo se puede vivir la cultura en euskera actualmente?», etcétera. Pero, además de eso, les pedimos a los ciudadanos que hicieran aportes. Sabemos que los ciudadanos no son legisladores y que no tienen por qué serlo, ya que la función de los ciudadanos no es esa, pero les preguntamos en su opinión qué medidas se deberían tomar para superar esas dificultades. Y en la propuesta aparece esa multitud de ideas, las medidas que propusieron con relación a la infracción que ellos sufren, ya que nos parecía y porque la vocación de la presentación de hoy es esa, hacer algo propositivo.]

Herritarrak erdigunera ekartzeko erabili dugun hirugarren zutabea Hizkuntza Eskubideen Behatokia da. Badakigu Behatokiaren ordezkariak Batzorde honetan egon zirela, hortaz, ez dut

errepikatuko haiek esandakoa. Ordea, gogoratuko dut 17 urtez ari dela lanean Hizkuntza Eskubideen Behatokia, milaka eskubide urraketa jaso duela. Baina guk azpimarratu nahiko genuke Behatokiak askotan zer-nolako erantzunak jasotzen dituen, herritarrek eskubideak urratu zaizkiela adierazten dutenean. Esaterako, administrazioetik errazki etor daitezkeen erantzun bat: «eremu mistoan komunikazioak itzuli gabe bidal daitezke, ez da, beraz, legea urratu». Edo seinale batzuen inguruan herri lan zuzendaritzatik etorritako erantzun bat: «ez daude eremu euskaldunean, beraz, ez da derrigorrezkoa euskara txertatzea». Horiek dira gaur egungo marko juridikotik ondorioztatzen diren erantzunak. Zer esan nahi du horrek? Herritarra nolabait eskubidez gabeturik geratzen dela. Bere ustez eskubide bat urratu zaio, kexa bat jarri du eta «hemen ez da legea urratu» jaso du erantzun moduan. Hortaz, ondorioztatzen da eskubidea ere ez dela urratu.

[El tercer pilar que hemos utilizado para traer al centro a los ciudadanos es el Observatorio de Derechos Lingüísticos. Sabemos que representantes del Observatorio estuvieron en esta Comisión, por lo tanto, no vamos a repetir lo que dijeron. Sin embargo, recordaré que el Observatorio de los Derechos Lingüísticos lleva 17 años trabajando y que ha recibido mieles de infracciones. Pero nosotros queríamos subrayar qué tipo de respuestas recibe muchas veces el Observatorio cuando los ciudadanos indican que les han violado los derechos. Por ejemplo, una respuesta que puede venir fácilmente de la administración es la siguiente: «en la zona mixta las comunicaciones se pueden enviar sin traducción, por lo tanto, no se ha infringido la ley». O una respuesta por parte de la dirección de obras municipal con relación a unas señales: «no están en la zona vascofona, por lo tanto, no es necesario introducir el euskera». Esas son las respuestas que se deducen del marco jurídico actual. ¿Eso qué quiere decir? Que de algún modo se le han privado los derechos al ciudadano. En su opinión, se ha violado un derecho, ha puesto una queja y ha recibido como respuesta que «aquí no se ha infringido la ley». Por lo tanto, se deduce que el derecho no se le ha violado.]

Horiek dira guk erabili ditugun hiru elementu nagusiak, gure ustez oso garrantzitsua zelako herritarrek erdigunera ekartzea. Guk Nafarroako gizartearen zati bat hartu dugu, euskaraz bizi nahi duten herritar horiek ekarri nahi izan ditugu.

[Esos son los elementos principales que hemos utilizado, porque para nosotros era muy importante traer a los ciudadanos al centro. Nosotros hemos cogido a una parte de la sociedad de Navarra, hemos querido traer a esos ciudadanos que quieren vivir en euskera.]

Ondoren, euskararen lege berri batek gure ustez zer nolako printzipioak izan beharko lituzke? Hemen daukazue zerrenda bat. Eskubide berdintasunaz, eskubide bermeaz, hizkuntza iraunkortasunaz hitz egiten dugu eta, ohartzen bazarete, hor agertzen diren elementu batzuk, eskubideei lotutako beste lege batzuei ere aplikagarriak izan daitezkeenak: prebentzioa eta egitatea, adibidez. Egia da horko batzuk zuzenean hizkuntza eskubideei lotzen zaizkiela, baina beste batzuk beste eskubide batzuei normalki lotu ahal zaizkie. Horregatik, gure ustez hizkuntza eskubideak, eskubide subjektiboak izateaz gain, giza eskubideen parametroetan ere kokatu behar dira. Hortaz, horiek dira gure ustez lege berri honek izan beharko lituzkeen printzipioak. Hori bai, gure lege proposamena egiteko ere, beste hausnargai batzuk izan

ditugu. Esan bezala, herritarrak erdigunera ekarri ditugu, baina herritarrak ez dira legegileak. Herritarrek beraien esperientziak kontatu dizkigute, beraiek nola bizi duten adierazi digute, baina egia ere bada herritarrei ezin diegula eskatu artikulatua prestatzeko.

[Luego, ¿qué tipo de principios debería tener una nueva ley del euskera en nuestra opinión? Aquí tienen un listado. Hablamos de igualdad, de garantía de derechos o de perdurabilidad de la lengua, y si se dan cuenta, algunos de los elementos que aparecen ahí también se pueden aplicar a otras leyes relacionadas con los derechos: la prevención y la acción, por ejemplo. Es cierto que algunos de ahí se relacionan directamente con los derechos lingüísticos, pero otros se pueden relacionar normalmente con otros derechos. Por eso, en nuestra opinión, los derechos lingüísticos, además de ser derechos subjetivos, hay que situarlos también en los parámetros de los derechos humanos. Por lo tanto, esos son los principios que esta nueva ley debería tener. Eso sí, para hacer nuestra propuesta de ley, también hemos tenido otros temas de reflexión. Como he comentado, hemos traído al centro a los ciudadanos, pero nos ciudadanos no son legisladores. Los ciudadanos nos han contado sus experiencias, nos han contado cómo viven, pero es cierto que no les hemos pedido a los ciudadanos que preparen el artículo.]

Beraz, gure proposamena egiteko hiru elementu izan ditugu hausnargai. Batetik, ariketa konparatibo bat egin dugu gaur egun Estatuan hizkuntza ofizialak dauden eremuetan dagoen araudiarekin, alegia, Galizia, Valentzia, Katalunia, EAE, Balear Uharteak eta Nafarroan. Horren ondorioa izan da, lege horiek zer arautzen duten eta nola arautzen duten kontuan hartuta, gaur egun Nafarroakoa dela guzti horien artean ahulena. 1986an onartutako lege horrek gehiago erreparatzen dio zonifikazioak dakarren zatiketari herritarren eskubideei baino. Egia da hor badagoela alderaketa handia. Kataluniakoa izan daiteke aurreratuena, baina hor gama handia dago: Valentzia, Balear Uharteak eta abar.

[Por lo tanto, para realizar nuestra propuesta hemos tenido en cuenta tres temas para la reflexión. Por un lado, hemos realizado un ejercicio comparativo con las zonas del Estado en las que hay lenguas oficiales, es decir, Galicia, Valencia, Cataluña, Comunidad Autónoma Vasca, Islas Baleares y Navarra. La conclusión de eso ha sido que, teniendo en cuenta qué reglas y cómo regulan, actualmente entre todas ellas la de Navarra es la más débil. Esa ley aprobada en 1986 se fija más en la división que supone la zonificación que en los derechos de los ciudadanos. Es verdad que ahí hay una comparación grande. La de Cataluña podría ser la más adelantada, pero ahí hay una gama amplia: Valencia, Islas Baleares, etcétera.]

Egia da guztiek dituztela elementu komunak, baina egia ere bada azterketa konparatibo hori egiten bada –eta oso ariketa interesgarria dela uste dugu Estatu berean eta marko juridiko berdinarekin azpian hizkuntza kudeaketa nola gauzatu den ikusteko– Nafarroakoa dela ahulena. Egia ere bada orain ofizialtasunaren aldarria ez dela bakarrik Nafarroara mugatzen ari eta ofiziala ez den beste hizkuntza batean, asturierara, gaur egun ere olatu handi bat sortzen ari dela. Orduan iruditzen zaigu ofizialtasun aldarria ez zaiola bakarrik lotzen Nafarroari, alegia, Nafarroan euskaraz bizi nahi duten herritarrei. Zorionez, ofiziala ez den beste eremu batzuetan –eta hor ere bitxia da nola gehiengoak osatzen ari diren ofizialtasuna exigitzeko– eskakizun

hori nahiko orokortu ari dela bihurtzen. Horiek izan dira guk kontutan hartu ditugun elementuak.

[Es cierto que todas tiene elementos comunes, pero también es cierto que si se hace ese examen comparativo –y creemos que es un ejercicio muy interesante para ver cómo se ha llevado a cabo la gestión de las lenguas bajo el mismo marco jurídico y en el mismo Estado– la de Navarra es la más débil. También es cierto que ahora el grito de la oficialidad no se está limitando solo a Navarra y que, por ejemplo, con otra lengua que no es oficial, el asturiano, actualmente se está creando una gran oleada. Entonces, nos parece que el grito de la oficialidad no se relaciona solo con Navarra, es decir, a los ciudadanos de Navarra que quieren vivir en euskera. Por suerte, en otras zonas en las que no es oficial –y ahí también es curioso cómo se están creando las mayorías para exigir la oficialidad– esa petición se está volviendo bastante general. Esos son los elementos que nosotros hemos tenido en cuenta.]

Bigarrena eta gure ustez oso elementu garrantzitsua da Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna, 1992an Europako Kontseiluak onartutakoa, Espainiako Estatuak berretsi egin zuena eta 2001etik indarrean dagoena. Baina, nik erreparatzen diot Itun horren 7.2. artikuluari. Horrek esaten du egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten aldeko neurriak ezin direla hartu beste hizkuntzen aurkako diskriminazio bezala. Hori oso elementu garrantzitsua iruditzen zaigu bi arrazoiengandik. Alde batetik, hau delako gaur egun Europa mailan, eta ez Europar Batasunaren mailan baizik eta Europako kontseiluaren markoaren barruan, alegia, Europa mailan giza-eskubideen defentsa egiten duen goi-mailako erakunde batean, gutxiengoen hizkuntzen garapenari buruzko marko juridiko horretan, diskriminazio positiboaz egiten den balorazioa. Askotan entzuten dugu euskararen aldeko neurriak hartzen direnean ez dakit noren kontra egitea dela, baina Europako Kontseiluak bere Kartan oso argi adierazten du. Eta are gehiago, 7. artikuluan esaten du edozein hizkuntzaren alde hartzen diren neurriak –berdin da ofiziala izatea ala ez– ezin direla beste hizkuntza batekiko diskriminazio neurri gisa hartu. Hortaz, iruditzen zaigu hemen ere badagoela oinarri oso interesgarria eta berretsi nahi dut Espainiako Estatuak Itun hau 2001. urtean berretsi zuela. Beraz, ordenamendu juridikoari erreparatzen badiogu, lehen mailako araudia da, alegia, derrigorrez bete beharrekoa.

[El segundo, y que para nosotros es un elemento muy importante, es la Carta Europea de las Lenguas Minoritarias o Regionales, firmada por el Consejo Europeo en 1992, que España ratificó y que desde el 2001 está en vigor. Pero, yo me fijo en el artículo 7.2 de esa Carta. Este dice que las medidas que se tomen a favor de una lengua en situación minoritaria no se pueden tomar como una discriminación hacia el resto de lenguas. Ese nos parece un elemento muy importante por dos razones. Por un lado, porque esta es la valoración que se hace con discriminación positiva en ese marco jurídico sobre el desarrollo de las lenguas minoritarias a nivel europeo y no a nivel de la Unión Europea, sino dentro del marco del Consejo Europeo, es decir, en una institución de alto nivel que hace la defensa de los derechos humanos a nivel europeo. Muchas veces oímos que cuando se toman medidas a favor del euskera es ir en contra de no sé quién, pero el Consejo Europeo en su Carta lo deja muy claro. Y, además, en el 7º artículo dice que las medidas que se tomen a favor de cualquier lengua –sin importar si es oficial o no– no se pueden tomar como medidas de discriminación para con otra lengua. Por lo tanto, nos

parece que aquí hay una base muy interesante y quiero ratificar que el Estado de España ratificó esta Carta en 2001. Por lo tanto, si vemos el ordenamiento jurídico, es una normativa de primer nivel, es decir, que hay que cumplirla obligatoriamente.]

Beste elementu bat, eta asko sakondu dugu horretan, gure proposamenaren oinarrietako bat hor kokatzen delako, ofizialtasuna bera da: zer ulertzen den edo zer ez den ulertzen ofizialtasunaz. Badakigu hemendik hainbat aditu pasatu direla eta horren inguruko hainbat azalpen agertu dutela eta egia da auzitegiak ezarri duela jadanik zer ulertu behar den ofizialtasunaz, hau da, zer ondorio ekarriko lukeen. Gure ustez, ofizialtasunak horregatik dauka garrantzi hori, hain zuzen ere, ofizialtasunaren ondorio juridikoak kokatzen direlako, ofiziala den hizkuntza horrek balio juridikoa duelako eta balio juridikoa izatea oso garrantzitsua da komunitatearen autopertzepzioari dagokionez, alegia, zure hizkuntzak balioa dauka eta zuk euskaraz egiten duzun edozein jardunek ondorio juridikoak ditu, ez duzu horren itzulpenik behar. Gure ustez, hori bada pisuzko arrazoi bat ofizialtasuna egoteko.

[Otro elemento, y en eso hemos profundizado mucho, ya que ahí se sitúa una de las bases de nuestra propuesta, es la propia oficialidad: qué se entiende y qué no se entiende por oficialidad. Sabemos que por aquí han pasado algunos expertos y que han dado diversas explicaciones al respecto y es cierto que el tribunal ya ha establecido lo que se tiene que entender por oficialidad, es decir, qué consecuencias traería. En nuestra opinión, por eso la oficialidad tiene esa importancia, concretamente, porque se sitúan las consecuencias jurídicas de la oficialidad, porque esa lengua oficial tiene un valor jurídico y tener valor jurídico es muy importante en lo referido a la autopercepción de la comunidad, es decir, tu lengua tiene valor y toda acción que hagas en euskera tiene consecuencias jurídicas, no necesitas la traducción de eso. En nuestra opinión, esa es una razón de peso para que haya oficialidad.]

Bestetik, ofizialtasunak ezartzen duelako hizkuntza baterako eskubidea, alegia, zuk edozein jardun hizkuntza horretan egin dezakezula, eta hizkuntza horretan diogunean da, ofizialak diren hizkuntzetan. Kasu honetan, Nafarroari dagokionez, gaztelania da Nafarroa osoan ofiziala, Estatu osoan den bezalaxe, eta horregatik aitortzen da edozein jardunek gaztelaniaz balio juridikoa duela eta eskubidea aitortzen zaizu. Bada, gure ustez, euskaraz, ofizialtasunak, hori emango liguke, edozein jardunek balio juridiko osoa izatea eta gainera, herritar batek erabakitzen badu bere jarduna euskaraz egitea –alde aktibo, zein pasibotik–, eskubide hori aitortua izatea. Guk hemen ikusi dugulako, esaterako, legeak ezarritako eremu mistoan, aitortzen dela ikuspegi aktiboa baina ez dela aitortzen ikuspegi pasiboa. Hori dagokion administrazioaren borondatearen esku geratzen da. Orduan, egia da eskubide horren egikaritzea hankamotz geratzen dela. Horregatik jaso dugu gure proposamenean ofizialtasuna izan behar dela ardatzetako bat, hori delako modu bakarra gaur egun dagoen marko juridikoan herritar guztiei eskubide berdinak aitortu ahal izateko.

[Por otro lado, porque la oficialidad establece el derecho para una lengua, es decir, que tú puedes hacer cualquier actividad en esa lengua, y cuando decimos en esa lengua nos referimos a las lenguas que son oficiales. En este caso, en lo que a Navarra respecta, el castellano es oficial en toda Navarra, al igual que en todo el Estado, y por eso se declara que cualquier acción tiene valor jurídico en castellano y se te reconoce el derecho.

Entonces, en nuestra opinión, la oficialidad nos daría eso con el euskera, que cualquier acción tenga valor jurídico total y, además, que si un ciudadano decide realizar su actividad en euskera –tanto desde la parte activa como la pasiva–, tener ese derecho declarado. Porque nosotros aquí hemos visto, por ejemplo, en lo que la ley ha establecido como zona mixta, que se reconozca el punto de vista activo, pero que no se garantice el punto de vista pasivo. Eso queda a voluntad de la administración correspondiente. Entonces, es cierto que la ejecución de ese derecho se queda cojo. Por eso hemos recogido en nuestra propuesta que la oficialidad tiene que ser uno de los ejes, ya que esa es la única forma que existe actualmente en el marco jurídico para poder declarar a todos los ciudadanos los mismos derechos.]

Eta erabili dugun azken hausnargaia izan da Parlamentuak berak Batzorde Berezi hau sortu zuenean eman zuen agindua. Lege berri baterako proposamena egiteko eskaera egin zitzaion eta nolabait printzipio iradokitzaile edo oinarriko printzipio batzuk ezarri zituen. Eta gure ustez printzipio horiek oso interesgarriak dira: nolabait zonifikazioa gainditzea, herritar guztiei hizkuntza eskubidea bermatzea eta nolabait Nafarroa osoan ofizialtasuna hedatzea. Hor, zalantza geratzen zaigu ofizialtasuna eta eremu soziolinguistikoaz hitz egitean, auzitegiak berak esan zuelako hizkuntza bat ofizial izendatzen denean ofizialtasunaren ondorioak edo edukiak ez zaizkiolako lotzen hizkuntza horrek daukan pisu sozialari. Hori, noski, ondoren garatuko diren politikek arautuko dute. Hortaz, hiru elementu horiek kontuan hartuta eta herritarren kezkek jasota, gure proposamena egiten hasi ginen.

[Y el último tema de reflexión que hemos utilizado ha sido la orden que dio el Parlamento cuando creó esta Comisión Especial. Se le solicitó que hiciera una propuesta para una nueva ley y de algún modo estableció algunos principios sugerentes o principios básicos. Y en nuestra opinión esos principios son muy interesantes: de algún modo superar la zonificación, garantizar los derechos lingüísticos a todos los ciudadanos y expandir de algún modo la oficialidad a toda Navarra. Ahí nos queda la duda al hablar de oficialidad y zonas lingüísticas, ya que el propio tribunal dijo que cuando una lengua se declara oficial las consecuencias o contenidos de la oficialidad no se relacionan con el peso social que tiene esa lengua. Eso, por supuesto, lo regularán las políticas que se desarrollarán después. Por lo tanto, teniendo en cuenta esos elementos y habiendo recibido las preocupaciones de los ciudadanos, empezamos a realizar nuestra propuesta.]

Eta azkena, ikuspegi zehatzago batetik gure proposamenak berak agertzen dituen elementuei dagokienez, hainbat dokumentu izan genituen kontuan eta bi ekarri nahi ditut, nire ustez garrantzi handia dutelako. Horietako bat da 2000. urtean 48.246 nafarrek babestu zuten hizkuntza eskubideen bermerako legea, «Oinarriak» plataformak aurkeztutakoa. Egia da orain dela 18 urte egindako proposamena dela, baina gure ustez lege horren printzipioek balio osoa dute eta berriz ere esan nahi dut milaka nafarren babes esplizitua izan zuela. Eta gure legea prestatzeko erabili dugun beste dokumentua, hizkuntza eskubideak bermatzeko protokoloa izan da. Hau 2016ko abenduan aurkeztutako dokumentua da, Europako 30 hizkuntza gutxituen berreskurapenaren alde lan egiten duten 100etik gora eragilek adostutako dokumentua, alegia, gaur egun Europa mailan inoizko adostasun sozial handiena duen proposamen politikoa hizkuntza eskubideei dagokienez. Kontuan izanda kontseilua gizarte-eragileen bilgunea dela,

nahitaezkoa iruditzen zitzaigun horrenbesteko adostasuna duen dokumentuaren printzipioak gure lege proposamenean jasotzea.

[Y, por último, dese una perspectiva más concreta, en lo referido a los elementos que incluye nuestra propia propuesta, tuvimos en cuenta diversos documentos y quiero traer dos, ya que creo que tienen una gran importancia. Uno de ellos es la ley para garantizar los derechos lingüísticos que en el 2000 apoyaron 48.246 navarros, presentada por la plataforma «Oinarriak». Es cierto que es una propuesta realizada hace 18 años, pero creemos que los principios de esa ley tienen todo el valor y quiero volver a decir que obtuvo el apoyo explícito de miles de navarros. Y otro documento que hemos utilizado para preparar nuestra ley ha sido el protocolo para garantizar los derechos lingüísticos. Este es un documento presentado en diciembre de 2016, un documento acodado por más de 100 actores que trabajar a favor de la recuperación de las 30 lenguas minoritarias de Europa, es decir, la propuesta política en lo referido a los derechos lingüísticos que mayor acuerdo social ha tenido nunca a nivel europeo en la actualidad. Teniendo en cuenta que el Consejo es la zona de encuentro de los actores sociales, nos parecía obligatorio recoger en nuestra propuesta de ley los principios de un documento que tiene tanto acuerdo.]

Gauzak horrela, horiek dira gure proposamena egiteko genituen prolegomenoak eta partekatu nahi genituen, interesgarria iruditzen zitzaigulako ideia batzuk azpimarratzea. Batetik, guk ere herritar batzuen edo milaka herritarren eskaerak ekarri nahi genituela. Bestetik, ikusi nahi genuen gaur egun gure inguruan zer-nolako ordenamendua dagoen eta non egon behar diren hobekuntzak. Eta bestetik, nola ez, horrenbesteko adostasunean egindako dokumentu batean oinarritzen den proposamenaz ari garela. Hortaz hizkuntza eskubidea bermatzeko lege berri baten atarian gaude, gure ustez zalantzarik gabe lege horrek printzipio nagusi batzuk izan beharko ditu, edozein legek izan beharko litzuzkeen antzekoak. Eta gure ustez lege berri honek ofizialtasuna izan behar du ardatz. Baina anbizioz jokatu beharko litzatekeela iruditzen zaigu.

[Así, esos son los prolegómenos que tuvimos para realizar nuestra propuesta de ley y los queríamos compartir, ya que nos parecía interesante subrayar algunas ideas. Por un lado, que nosotros también queríamos traer las peticiones de algunos ciudadanos o de miles de ciudadanos. Por otro lado, queríamos ver qué ordenamiento hay en la actualidad en nuestro entorno y dónde se tienen que dar mejoras. Y, por otro lado, cómo no, que estamos hablando de una propuesta que se basa en un documento realizado con tanto acuerdo. Por lo tanto, estamos a las puertas de una nueva ley que garantice los derechos lingüísticos y en nuestra opinión, sin lugar a dudas, esa ley tiene que tener unos principios principales, parecidos a los que debería tener cualquier ley. Y creemos que esta nueva ley tiene que tener la oficialidad como eje. Pero nos parece que debería jugar con ambición.]

Nafarroa eredugarria izan daitekeela sinesten dugu, hizkuntza lege berri bat prestatzerakoan, eta horrexegatik uste dugu nolabait, gaur egun esandakoa, azterketa konparatibo bat egitean Nafarroako legea dela ahulena. Baina iruditzen zaigu lege berri batek barne hartu beharko litzuzkeela herritarrak egunerokotasunean eragiten dituzten faktore guztiak euskaraz bizi ahal izateko. Horregatik uste dugu lege berri batek hitz egin beharko duela, administrazioaz eta

instituzioez, noski. Eta hor, zer-nolako eskubideak aitortu behar zaizkio herritarrari? Lehen aipatutakoak, horietako asko dira ofizialtasunetik ondorioztatzen direnak: jardunen balio juridikoa, administrazioarekiko harremanak euskaraz izan daitezela bermatzea ikuspegi aktibo zein pasibo batetik.

[Creemos que Navarra podría ser un modelo, a la hora de preparar una nueva ley lingüística, y por eso creemos de algún modo, lo dicho hoy, que al realizar un análisis comparativo la de Navarra es la más débil. Pero nos parece que una nueva ley debería considerar todos los factores que influyen en la vida cotidiana de los ciudadanos para poder vivir en euskera. Por eso creemos que tiene que una nueva ley tiene que hablar de la administración y de las instituciones, claro. ¿Y ahí qué tipo de derechos hay que reconocerle al ciudadano? Los que he comentado antes, son muchos de esos los que se deducen de la oficialidad: en valor jurídico de las acciones o garantizar que las relaciones con la administración sean en euskera, tanto desde un punto de vista activo como pasivo.]

Era berean, iruditzen zaigu instituzio eta administrazio publikoetan lehentasunezko eremuak jaso behar direla. Egia da hizkuntza legeetan eta justizian beti agertzen dela –babes judizialera jotzeko eskubidea, defentsa eskubidea– eta hizkuntzak badaukala bere garrantzia babes judizial eraginkorrerako eskubidean, hori ez da guk esaten dugun gauza, baizik eta nazioarteko araudiak ezartzen duena. Hortaz, iruditzen zaigu legeak instituzio eta administrazio publikoetan lehentasunezko eremuak identifikatu beharko lituzkeela. Gure ustez, justizia eta osasungintza, baina horretaz harago ere lege horrek hitz egin beharko lukeela irakaskuntzaz, gure neska-mutilek derrigorrezko hezkuntza bukatzean izan behar dituzten hizkuntza gaitasunez, lanbide heziketaz, unibertsitateaz, etengabeko heziketaz, helduen euskalduntzeaz eta abar.

[Igualmente, nos parece que en las instituciones y administración pública hay que recoger ámbitos de prioridad. Es cierto que en las leyes lingüísticas y en la justicia siempre aparece –el derecho a actuar con protección judicial, el derecho a la defensa– y que la lengua tiene su importancia en el derecho a una protección judicial eficaz, eso no es algo que decimos nosotros, sino lo que establece la normativa internacional. Por lo tanto, nos parece que la ley debería identificar ámbitos de prioridad en las instituciones y administración pública. En nuestra opinión, la justicia y la sanidad, pero más allá de eso esta ley debería hablar también de la enseñanza, de la capacidad lingüística que deben tener nuestros chicos y chicas al terminar la enseñanza obligatoria, de la formación profesional, de la universidad, de la educación permanente, de la euskaldunización de adultos, etcétera.]

Gaur nirekin Kontseiluko zuzendaritza kide den Olano jauna etorri da, IKA, alegia helduen euskalduntzearen sektorea ordezkatzeko du. Eta aldarrikapen hori beti egin dugu, gure ustez berezko hizkuntza ikastea doakoa izan beharko lukeela, hori izango litzateke normalena eta hori ere jaso beharko litzateke. Eta bestelako eremuez ere bai, eremu sozioekonomikoak, kontsumo harremanak bezala. Azken finean, gure bizitzaren zatirik handiena besteen zerbitzua jasotzen ematen dugu. Hortaz, kontsumo harremanek badaukate zerikusirik hizkuntza eskubideekin? Hori aitortu behar da? Bai, gure ustez eta hori nahiko normala da beste

komunitate batzuetan, hori jasota egotea. Onomastika edo hedabideak, adibidez. Hor gogoratuko nahiko nuke Gobernua sostengatzen duten akordio programatikoan horrelako neurriak jasotzen zirela, kuoten inguruan eta euskarazko kuota jartzeari buruz, erabat positiboa iruditzen zaiguna. Beraz, eraman dezagun legera ere bai. Kultura ere bai. Eta elementu horiek hor badaude ere, zalantzarik gabe, honen guztiaren sustatzaileak botere publikoak izan behar dira eta hori ere gure ustez legean jaso beharko litzateke.

